



Josu OZAITA Antropologoa

Artzain kulturan barneratzeko plana

E rrepidean doa artaldea, autoei beraien presa mantsoaraziz. Arrastoak uzten dituzte ardiek pasaeran, urbanizaturik dagoen herrian natura ere badela azalaraziz. Zintzarri soinuak tartekatzen dira ardien beeeekin. Herriari bueltaka pasioan dabiltzan adinekoei irribarrea aterako zaie orduan, begiak ilusio eta esperantzaz bete. 2024. urtean bagaude ere, eguneroko argazkia da Berastegin, herriari bizia ematen dion artaldea, lo egiteko tokitik haragoko dimentsioa ematen diona. Lehenaldia- ren oroitzapenetik, orainaldiaren errealitatea deskribatzen duena. Batzuek esango dute azken indigenak direla artzainak, baina atzoko artzainak ez dira gaurkoak, edota artzaintza bera mugimenduan dagoen kontzeptua dugu, fosilduriko irudien pisuak artzaina bera nekatzen badu ere.

BERASTEGI BERDEA

Berastegi, Tolosaldeko mendialdean aurkitzen den 1.000 biztanleko herria da. 1.000 herritar eta 2.851 ardi, ia 3 ardi biztanleko. 62 etxetan daudenez ardiak, ezinbestean lotura eta jakintza dakar berarekin, ardi, artzain eta gazta kulturaren eratzea. Honekin harremanetan dago paisaia ere: berezia da Berastegiko paisaia, Gipuzkoan ia aurkitu ezin daitekeena. Berdetasun horrek pertsonari bake sentsazioa ematen dio. Berastegiarrei ere emozio positiboa ematen die, eta kanpoan lan egin eta itzuleran herriko belaze berdeak ikustean, etxean sentitzen dira. Zelaiak daude, baserriak, herri gunea, eta ez da industria gunerik ikusten. Horrek bere alde negati-

{gastronomiaren antropologia}

boak izango ditu, baina baita positi- boak ere. Askorentzat “oasia” da, oasi berdea, eta itsasoak ematen dien pa- txada ematen die.

Ardiek paisaia natural-kultural ede- rra sortu dute, zaindua. Lehen soroak zirenak, belazeak dira egun. Haiek ga- be itsustuko litzateke erabat Berastegi, “zikinak” hartuko luke, eta berastegia- rren herri politaren harrotasuna itzali- ko. Artzaintza estetiko bilakatzen da orduan, naturaren ederra paradisu egi- ten duena, emozioak biziz, pertsonei eraginez. Edertasuna da Berastegiko artzaintza; baina edertasun horretatik, animalia eta gizakiaren arteko elkarla- nera eramaten gaitu, motordun lore- zaintza batetik haragoko praktiken adibidera. Emozioak, paisaia eta ar- tzain kultura dago, ondorioz.

MENDIKO ARTZAINZATIK, ETXE ONDOKORA

Duela hamarkada gutxi, Berastegi ez omen zen halakoa. Soroak ziren nagusi gaurko belardietan, eta haietan artoa (ganaduari eman edo taloak egiteko), garia (etxerako ogia egiteko), arbiak, babak, patatak... ikusi zitezkeen. Ho- rrek kolore diferenteak izatea esan nahi zuen: goldaturiko sail marroia, pagotxa edo arbiaren kolore biziagoak, artoa jaiotzen, gari berdea nola horiz- tatzen zen ikusten zuten... Errepideak baino, bidezidorrak zeuden, asto eta behien bideak, herriko adinekoek kon- tatu didatenez.

Garai hartan, ez zen ardirik ikusten herrian. Artzaintza mendian egiten zen, Leitzaranean. Bertan, ia baserri ba- koitzak borda zuen, berrehun bordatik gora omen zeuden. Eta baserriko lane- kin uztartuz, artaldea izaten zuten mendian, tarteka bertara hurbiltzen zi- relarik, behar handiagoz neguan, arku- me garaian. Orduan, tarteka, borda al- boko txabola txikian lo egin eta ardiei jana eman edo arkumeak jaiotzen la- guntzen zieten. Arkumeak ziren diru iturri, eta gaztak, berriz, etxerako lain. Gaur ez bezala, larruak eta artileak ere gehigarri ekonomiko ziren orduan.

Astoa edo mandoa hartu, eta zakue- tan ardientzat belarra eta haientzat urdai, txistor eta ardo pixka bat hartu- ta joaten ziren oinez. Mendiko ar- tzaintza zen lehen, gaur egun Leitza- ran deitzen den parajeetakoa. Mendiko bordak eta txabolak ziren ar- taldea zaindu eta kudeatzeko lantoki. Baina herri mendiak saldu ziren, eta horrekin batera bertako ustiaketa era- bat aldatu zen. Ardi gehiegi ziren jabe ziren papergintza enpresentzat, eta hala, ardiak ukuiluetara jaitsi ziren.

90eko hamarkadan oso jende gutxi bizi zen baserritik Berastegin, eta base- rriko lanak gelditutako denbora li- brean egiten ziren. Baina izan ziren lantokira joan ordez baserrian lan egi- tea hautatu zutenak, eta, ordainsari bat lortze aldera, gazta izan zen lagun- tza bat. Hau da, artzaintza ez da lur- rak txukun mantentzeko helburu soilik, gazta egiten ikasi zuten herriko ema- kumeek, Andres bertako artzainaren




Berastegin hamabi etxetan egiten dute gazta. Josu OZAITA

eskutik kasu gehienetan. Honek kultu-
ra bat sortu du, 12 etxetan egiten baiti-
ra egun gaztak, etxerako eta familiako
kideentzat.

ARTZAIN KULTURA SUSTRAITUA

Ardi asko edo gutxi izan, ardiak izateak
ardiekin elkarbizitza dakar. Ikastea,
eurak hobeto ezagutzea. Baita pertso-
nen bizitzaren erritmoa eurek marka-
tzea ere. Arkume garaian adi egon
beharko dute, gazta denboraldia hasi-
ko da orduan, eguneroko errutina bi-
deratuko duena. Ardiak belazetik be-
lazera mugitu beharko dituzte, udan
belar lanak egin, garoa bildu... Honek,
nahitaez, kultura bat barneratzea eka-
rri du, belaunaldiz belaunaldi trans-
mititu dena, edo aurreko belaunal-
diak ez bada ere, alboko etxeakoak
erakutsiko diena.

Berezia da bertako artzaintza. Ogi-
bide hori soilik duen artzain bakarra
dago, baina artzain asko daude. Ba-
tzuk afizio, besteek zerbait gehiago.
Eta “heldu” iruditik aparte, baita gaz-
teak ere, txikitatik jaso dutenak, be-
raien zati bilakatu dutenak. Ez dira ar-
talde handiak, baina bestelako mimoz
egindako artzaintza jasangarria buru-
tzeko aukera ematen die txikitasun
horrek. Ia egunero, ardiak ukuilutik
kanpora aterako dira, belar freskoa
dastatuko dute, eta natura zein klima-
rekin elkarlanean buruturiko artzain-
tza burutuko dute. Lorezainak dira ar-
diak, baina gazta egiteko esnea



Artzaintzaren kulturak pisu sakona dauka Berastegin eta bertako herritarren bizitzetan. Josu OZAITA eta Julen LARRUSKAIN

ematen dute, eta nola ez, baita haragi
goxoa ere, kalitate handikoa.

ARTZAIN KULTURAN BARNERATZEKO PLANA

Hau dena bizitu, ikusi eta dastatzeko,
artzain kulturaren barneratzeko gonbi-
dapena egin digute bertako artzainek.
Modu berritzaile eta erakargarrian,

artzain kultura hobeto ezagutzeko aukera izango
dugu, martxoaren 1-3 arteko asteburuan. Bertan,
jardunaldiak, ibilbideak bordetara astoekin, hau-
rrentzat hitzaldia, azoka gastronomikoa... egingo
dira, eta larunbatean, artzain kultura ezagutzeko 2
kilometroko ibilbidea bertako belazeetan, zirkui-
tua 10 gunetan banatuta. Ondo pasa, ikasi eta sen-
titzeko gonbidapena, honenbestez.

BE! ARTZAIN KULTURA ASTEBURUA 2024. BERASTEGI

MARTXOAK 1, OSTIRALA
HAUSNARTU ETA EKIN! JARDUNALDIAK
14.30 Kafea.

14.45 Aurkezpena Andoni Zuriarrain alkatearen
eskutik.

15.00 “Ardi ile moztaille baten hausnarketak”,
Joseba Attard-en ahotik.

15.45. “Berastegiko arkumea proiektua ezagutuz”,
herriko artzainekin tertulian.

16.15. “Hausnarrean. Ardiek egin naute artzain”,
solasaldia Josebe Blanco artzainarekin.

17.15. Mahai ingurua: “Zein dira etorkizuneko

gakoak?”, parte hartzaile guztiekin. • Ondoren,
luntxa, parte hartzaile eta entzuleak elkarturik.

MARTXOAK 2, LARUNBATA

10.00 Garai bateko artzaintza eta bordara bisita
15.00 Berastegiko belazeak eta gazpio bisita
astoekin

15.00 Haurrentzat hitzaldi tailerra, Oier eta Iraitz
artzain gazteen eskutik.

19.00 Azoka gastronomikoa herriko frontoian.
Kalderetea, ardi gaztarekin egindako kroketak,
gazta, arkumea parrillan, arroz esnea... eta baita

beste hainbat postu ere, artile tailerrak, artisau
garagardoak, arkumea erosteko aukera... eta
trikitilariak giroa alaituz.

MARTXOAK 3, IGANDEA

10.00, 11.30 eta 13.00etan: Gazpio gaztandegira
bisitak.

10.00-14.00 artean Artain kultura ibilbidea. 2.5
kilometro. 10 gune: ardien gunea, asto itzuliak,
erakusketak, artzain txakurren erakustaldia,
photocall, gazta dastaketa azkarrak...

12.00-15.30 Azoka gastronomikoa.